

"EROSKI-REN IKASGELA" INAUGURATU DUTE DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO INGENIARITZA FAKULTATEAN

- **Ikasgela irekita, bi erakundeek pauso bat eman dute elkarren ezagutzak trukatzeko eta eta, hala, gaitasuna, teknologia eta ezarpena landuta bezeroari soluzio berriak bilatzeko**
- **Deustuko Unibertsitateko errektoreak eta EROSKIko presidentek inauguratu dute "DEUSTU - EROSKI Ikasgela"**

Bilbo, 2017ko urtarrilaren 20a.- [DEUSTUKO Unibertsitateak](#) eta [EROSKI](#) gaur arratsaldean inauguratu dute "EROSKIren ikasgela" unibertsitateko [Ingeniaritza Fakultatean](#). Ikasgela hori irekita, beste pauso bat eman dute bi erakundeek, teknologia lankidetzaren esparruan. Xedea da negozio aukerak eta ereduak maximizatzeko proiektuak eratzea; horretarako, datu bolumen handien prozesamenduaz behartzen diren negozioetan jarriko dute arreta bezeroari soluzio berriak bilatzeko.

DEUSTU - EROSKI Ikasgela inauguratzen, hor izan dira Deustuko Unibertsitateko errektore Jose Maria Guibert eta EROSKIko presidente Agustin Markaide, eta ondoan izan dute Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendaria, Juan Emilio Andrades.

Hitza hartu duenean, Jose Maria Guibertek honela azaldu du Ikasgelak dakarren interesa: *"Bihurtu dadila gure unibertsitatearen eta enpresen lankidetzaren trena eraginkorra, eta ekar ditzala irtenbide teknologikoen diseinua eta garapena, EROSKIri bere eguneroko jardueran baliozko datuak ateratzeko modua emango diotenak"*. Errektoreak honela gaineratu du: *"Lankidetzaren ikasgela hauek, era berean, baliozkoak dute DEUSTU prestakuntzazko eguneratzearen eta etengabeko prestakuntzaren alde egiten ari den lanean"*.

Agustin Markaidek hauxe azpimarratu du: *"Garrantzitsua da enpresaren eta unibertsitatearen kooperazioa, egokia da-eta pertsonen gaitasunean oinarrituta abantaila lehiakorrek eta iraunkorrek eratzeko"*. Honela mintzatu da gero: *"Informazioaren kudeaketa dela eta, eraldatzen ari dira balio kateko zenbait alderdi, eta, gaur egungo ingurune teknologikoan, enpresek, erronkatzat harturik abantaila lehiakor berriak eratzeko, sarritan, beren mugetatik kanpo atera behar izaten dute, eta beharrezkoa gertatzen zaie barneko ezagutza kanpokoarekin konbinatzea"*.

DEUSTUKO Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko dekanok, berriz, Asier Perallosek, hauxe azpimarratu du bere hitzaldian: *"Enprekin kolaboratzea oso inportantea da ikasleen ikaskuntza prozesuan"*, eta hauxe aipatu du ondoren: *"DEUSTUKO eta EROSKIko, Big Data eta Business Intelligence programan elkarrekin kolaboratuta, EROSKIri balioa eman ez ezik, ikasleei lagundu diete gaitasun teknikoak, pertsonalak eta profesionalak garatzen EROSKIren premietarako irtenbideak garatuta"*.

EROSKIren Marketin Saileko Proiektu Estrategikoetarako zuzendariak, Ana Cuevasek, balioan jarri du kooperatibak eta Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateak izenpetu duten hitzarmena: *"Izan ere, ikerkuntzarako eta berrikuntzarako espazio"*

bat irekiarazi du horrek, eta, hala, unibertsitatearen eta enpresaren gaitasun askotarikoak elkartuta, fakultateko irakasle eta ikasleak eta EROSKIko profesionalak batera jardungo dira bezeroari irtenbide berriak eratzeko proiektuetan".

Ingeniaritza Fakultateko dekanordeak ere, Alex Rayonek, garrantzia eman dio ireki den aukerari: *"Deustuko irakasleen eta ikasleen gaitasunak eta EROSKIko profesionalenak batuta, balioa atera ahalko da datuetatik. Gaur egun, gero eta garrantzitsuagoa da negozio eta teknologia ezagutzak elkartzea; alde horretatik, kontsumitzaileari eskaintza pertsonalizatua eta balioduna eratzeko orduan Big Dataren teknikak ematen dituen aukerei esker, EROSKIko eskaintza komertzial erakargarriagoa osatu ahalko du, eta, era berean, berrikuntzak egin ahalko ditu produktuetan eta zerbitzuetan".*

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendariak ere, Juan Emilio Andradesek, inaugurazioan parte hartu du, eta hauxe nabarmendu du: *"EROSKIren eta DEUSTUko Unibertsitatearen lankidetzak akordio honek emaitza handiak ekarriko ditu luze gabe hemengo merkataritzaren sektorean".* Horretaz gain, Andradesek gogorarazi du Eusko Jaurlaritza aurrendaria izan zela datuen garrantziaz jabetzeko eta haiek denon ondare gisa erabiltzeko orduan: *"Erabat ziur gaude datuak demokratizatzea ona dela gizartearentzat, herritar guztiontzako hobekuntzak ekarriko baditu".*

EROSKI eta Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateak hitzarmen bat sinatu zuten 2016an, bi erakundeek jakintza trukatzeko eta bezeroarentzako irtenbide berriak eratzeko gaitasunaren, teknologiaren eta ezarpenaren arloan. Berrikuntza proiektu horiek garatzeko, programa gurutzatuak egitea planteatzen dute: EROSKIko profesionalak Deustuko Ingeniaritza Fakultateak teknologia arloan dituen prestakuntza programetan parte hartuko dute, eta, era berean, EROSKIko profesionalak formakuntzak antolatuko dituzte fakultateko ikasleentzat Deustuko Unibertsitatearen gonbidatu-irakasle gisa.

Deustuko Unibertsitateari buruz

Deustuko Unibertsitatea gizarte ekimenerako gune bat da, eta egoitzak ditu Bilbon eta Donostian. 130 urteko eskarmentua izanik, ekarpen handia egin dio garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoari.

Ingeniaritza Fakultatearen eta Deustotechen bitartez, eremu teknologikoen eta horien aplikazio espezifikoaren ikerketan dihardu, hala nola osasunean, iraunkortasunean, garraioan, fabrikazioan eta segurtasunean, eta, hala, oinarri teknologikoa duten enpresa berrien sustapenean laguntzen du.

Nazioarteko proiektua, hala proiektuena nola ikasleen jatorriarena —ikasleen %15 mundu osoko 60 herrialdetatik baino gehiagotatik etorriak baitira—, bere nortasun ikurretako bat gehiago da.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.877 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hor ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horrez gain, gasolindegia, bidaia bulegoak, lurrindegia eta kirol ekipamendurako dendak.

Zazpi milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.870 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide

Hurrengo lau urteetarako plan estrategiko berria ari da lantzen. Zenbait lehentasun jarri ditu helburu gisa: bere merkatuetan lehiatzea, bezero-bazkidea estrategiaren erdigunean jartzea eta bere pertsona taldeen gaitasunak indartzea.

Informazio gehiago lortzeko:

EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Oscar Gonzalez Uriarte - Tel. 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prensa bulegoa - Consejeros del Norte Ziortza Beristain / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA Ingeniaritza Fakultatea Prensa-bulegoa Miriam Portell, Tel.: 944 139 243 mportell@Deusto.es
---	---